

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Kontxi Belandia Lekue

*Galdakao,
Bizkaia
(1929-2020)*

Aurkibidea



Biografia



Bekelarre auzoan jaio zen, baina bost urte zituela Elexaldera joan ziren etxeok eskola hurbilago izan zezaten. Ama Kortaederrakoa zuen eta aita Barakaldokoa. Ama lau seme-alaba txiki zituela alargundu zen eta Bilbon erositako arraina Galdakaon saltzean atera zuen bizimodua. Gerra Zibilean, etxetik irtenarazi eta Frantzian pasatu zituzten hiru urte errefuxiatuta. Herrira itzulera ez zen batera erraza izan; izan ere, beraien etxean beste batzuk bizi ziren ta kamara batean egon ziren bizitzen etxera bueltatu ahal izan ziren arte. Bizimodu gogorak eraginda, Eibarren, Larrabetzun eta Dimako Indusi auzoan egon zen neskame eta umezain. Galdakaon Dinamita eta Kantabrika lantegietan ibili zen Plazakoetxeke gasolindegian beharrean hasi arte. Gasolindegian ezagutu zuen bere senarra izango zena, Bizente Bikandi. Gasolindegiko lana utzi, ezkondu eta Bizenteren etxea zen Herriko Tabernara joan zen bizitzen. Euskararen alde lan asko egindakoa da Kontxi, elkarrizketa garaian ere Berbalagun egitasmoko kidea zen.

Zintak

GAL-007

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2012-11-26
- **Iraupena:** 65 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

GAL-008

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak

- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2012-11-26
- **Iraupena:** 71 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

GAL-011

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2012-12-03
- **Iraupena:** 65 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

GAL-012

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2012-12-03
- **Iraupena:** 73 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-03-26

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com